

260/2020 Ebazpena, 2020ko uztailaren 1ekoa, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen den Osakidetzako webgunean argitaratzeko 2018ko aldi baterako kontratazioko zerrenda eguneratuak (2014-15eko EPetik sortutakoak), bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakia (EHAA 106 zk., 2011ko ekainaren 6a), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluarena. Horren bidez arautzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko aldi baterako kontratazio-zerrendak.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren 10.4 atalaren arabera, urte bakoitzeko lehen lauhilekoan eguneratu egingo dira Osakidetzan aurreko urteko abenduaren 31ra arte dagokion kategorian emandako lanbide-esperientzia eta ezarritako epean aurkeztutako euskara-eskakizunak, Erabaki horren 4. atalean aurreikusitako moduan. Horretan oinarrituta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetzako webgunean aldi baterako kontratazioko 2018ko zerrenda eguneratuak argitaratzeko agintzea, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda modalitateetan.

Zerrenda horiek 2020ko uztailaren 2an jarriko dira indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 1ean



Osakidetza
María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA